



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRI OROKORRAK, ARABAKO KALKULU GUNEA AB - CENTRO DE CÁLCULO DE ÁLAVA S.A. SOZietatean EROSKETA-TEKNIKARI LANPOSTU BAT BETETZEKO LAN KONTRATUDUN LANGILEEN HAUTAKETA ARAUTZEN DUTENAK

LEHEN OINARRIA.- ARAU OROKORRAK:

- 1.1.** Oinarri hauen xedea da erosketa-teknikari lanpostu bat (2022006) betetzeko hautaketa-prozesuaren arauak ezartzea (2022006).
- 1.2.** Aplikagarria izango da deialdi honetarako xedatutakoa, oro har. Hautaketa sistemak eta puntuazioek oinarri hauei jarraituko diete.
- 1.3.** Deialdiaren xede den plazak enpresaren hitzarmenaren arabeko ordainsaria izango du (5. maila: 41.255,47 euro gordin urtean). Horrek berak arautuko ditu gainerako lan baldintzak ere.
- 1.4.** Lanpostuaren zereginak AKSaren bulegoetan beteko dira, Gasteizen (Araba).
- 1.5.** Plaza betetzeko berariazko araudia haren oinarri espezifikoean jasoko da.
- 1.6.** Lanean hasteko data 2022ko urriaren 1a izango da (hautaketa-prozesua beranduago bukatu ezean), eta aldi baterako kontratu modalitatean egingo da, kontratu mugagabe bihurtzeko aukerarekin. Mugagabe bihurtzea 2022ko abenduaren azken aldean egingo da, AKSAko langile baten txanda-kontratua formalizatuz. Hori guztia, dagokion probaldia gainditzekotan.
- 1.7.** Deialdi hau enplegu webguneetan argitaratuko da, eta oinarriak (orokorrak eta espezifikoak) eskuragarri daude AKSaren web orrian (www.ccasa.eus) eta enpresa laguntzailearen web orrian (www.qualisconsultores.es).





Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

BIGARREN OINARRIA.- IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte (baldintzak baztertzaileak dira betiere):

- A) **Eskaera:** **Eskaera, I. eranskina eta II. eranskina** betetzea, dokumentu horietan jasotzen diren eremu guztietan.
- B) **Nazionalitatea:** Besteren konturako lanpostuetan langile lan kontratudun aritzeko indarrean den legediak ezartzen dituen betebeharrak guztiak betetzea. Atzerritarrei dagokienez, aintzat hartu behar da abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak (atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldatzen du) eskatzen dituen baimenak eduki behar dituztela.
- C) **Adina:** Hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiroko gehieneko adina ez gainditzea.
- D) **Titulazioa:** Oinarri espezifikoaren hirugarren oinarrian adierazitako titulazioetako bat izatea edo hura jaulkitzeko eskubideak ordaindu izana.
- E) **Gaitasun funtzionala:** Ez izatea dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen osasun arazorik, hargatik eragotzi gabe Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea.
- F) **Gaikuntza:** Ez egotea epai bidez edo zerbitzuaren diziplina espedientearen bidez administrazio publikoetako edo sektore publikoko enpresetako edozeinetatik bereizia edo aldi batez lanpostutik kendua, eta ez egotea ezgaiturik funtzio publikoak betetzeko.

Aurretik adierazi diren baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako eduki behar dira beterik, eta lan kontratua egiten den unera arte betetzen jarraitu, salbu eta E apartatuan aipatzen dena, zeina AKSAk erabakitako Mediku Zerbitzuak ziurtatu beharko baitu kontratazio proposamena egin aurre-aurretik.

Pertsona desgaituak gainerako izangaien baldintza berberetan onartuko dira hautaketa probetan, baldin eta haien mugak iragarritako lanpostuari dagozkion eginkizunak edo zereginak normaltasunez betetzearekin bateraezinak ez badira. Hautaprobetan, denbora eta baliabideak ahal bezainbeste egokituko dira, baldin eta interesdunek hala eskatzen badute eskaeran.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

HIRUGARREN OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA:

Izangaiek honako agiri hauek bidali beharko dituzte, posta elektronikoz, deialdi bakoitzean zehazten den helbidera:

- - **I. eranskina**
- - **II. eranskina**
- - **NANaren** edo balio bereko nortasun agiri baten **irudi eskaneatua**.
- - **Curriculum vitae**.
- - Gizarte Segurantzak emandako **lan bizitzaren txosten eguneratua**.
- - **Ezagutzen zinpeko adierazpena**.
- - **Curriculum memoria**
- - Oinarri espezifikoetan **eskatutako titulazioaren kopia**.
- - Eskatutako ezagutzak edo baloratzekoak direnak egiaztatzeko **ziurtagirien edo diplomen kopia**.
- - Hizkuntza **titulazioen kopia**.
- - **Izangaiek baldintzak betetzen dituela eta alegatutako merezimenduak egiazkoak direla frogatzen duten agiri guztiak**.

Arabako Kalkuluguneak eskubidea du egiaztatzeko emandako dokumentazioa/informazioa egiazkoa dela, eta hautaketa prozesutik kanpo utzi ditzake automatikoki egiazkoa ez den informazioa eman dutenak.

Eskabideak aurkezteko epea **2022ko uztailaren 4an** amaituko da.

Qualis Consultores de Talento, S.L. enpresa laguntzaileak erantzuna bidaliko du hartu izanaren agiri gisa, posta elektronikoz, eskaera bidali ondoko 48 ordu baliouduneko epean, eta izangai bakoitzari eskaera kode desberdin bat helaraziko dio.

Izangaiei nortasuna isilpean edukitzeko erabiliko da kode hori hautaketa prozesuan egiten diren argitalpenetan.

Mezu elektronikoa bat bidaliko da, informazio gisa, izangaiek emandako helbide elektronikora, jakinarazteko prozesuan onartu egin dituztela edo, hala badagokio, zergatik baztertu dituzten. Halaber, izena eman duten izangaietako bakoitzari identifikazio kode bakar bat emango zaio, faseetako bakoitzeko emaitzetara sarbidea izan dezan.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

POSTA ELEKTRONIKORA EGINDAKO JAKINARAZPENEI BURUZKO OHARRA:

Hautaketa prozesuaren edozein fasetan posta elektronikoko bidez bidaltzen diren jakinarazpenen xedea informazioa ematea da eta ez dira, inolaz ere, lotesleak izango.

LAUGARREN OINARRIA.- INFORMAZIOA ARGITARATZEA:

Oro har, bitarteko hauen bidez jakinaraziko dira deialdiaren eta hautaketa prozesuen inguruko iragarkiak, probetarako deialdiak, emaitzen argitalpenak eta abar:

- Web orria: www.ccasa.eus
- www.qualisconsultores.es web orria

Prozesuak iraun bitartean, eskabideak aurkezteko epea amaitu arte, helbide elektronikoko bat jarriko da eskuragarri interesdunentzat, argitaratutako oinarrien inguruko galderak egiteko edo argibideak eskatzeko.

Interesdun guztien eskura jartzen da honako helbide elektronikoko hau, argitaratutako oinarriak direla eta kontsultak edo argibide eskaerak bidaltzeko eta hautaketa prozesu osoan zehar alegazioak egiteko:

2022006@qualisconsultores.es

Fase bakoitza amaitzean, Qualis Consultores de Talento, S.L. enpresa laguntzaileak lortutako balorazioen zerrenda egingo du, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta alegazioak aurkezteko hiru egun balioduneko epea ezarriko du. Era berean, ariketa bakoitzean ateratako behin betiko emaitzak argitaratuko ditu, eta ezarritako gutxieneko puntuazioa lortzen ez duten hautagaiak baztertu egingo dira. Behin betiko emaitzen argitalpena izango da epaimahaiak behin-behinekoei egin zaizkien alegazioei emandako erantzuna.

BOSGARREN OINARRIA.- HAUTAGAIEN HAUTAKETA:

Hautaketa-probak amaitutakoan, epaimahaiak kontratazio proposamena egingo du fase bakoitzean lortutako puntuazioak batuta guztizko puntuaziorik handienak lortu dituzten izangaien alde.

Berdinketarik badago, lehentasuna emango zaie emakumeei, emakumeak % 40 baino gutxiago diren profil profesioaletan, salbu eta beste izangaiak arrazoiak badituzte neurri



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

hori ez aplikatzeko, sexuagatiko bazterkeriakoak ez badira; esaterako, enplegua lortzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboetakoren batekoak izatea.

• Aurreko paragrafoan ezarritakoa eragotzi gabe, berdinketa hausteko ezarritako lehentasun hurrenkerara honako irizpide hauen arabera ezarriko da:

1. 2. fasean lortutako puntuazioa
2. 4. fasean lortutako puntuazioa
3. Eusko Jaurlaritzako Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak onesten duen urteko ebazpenaren arabera (ordena ezartzeko unean indarrean egon behar da), zeinaren bidez argitara ematen baita kasuan kasuko ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien kudeaketa prozesuan eta ikasturte horretan deitu daitekeen beste edozein hautaketa prozesutan ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

• Hautaketa prozesuaren emaitza interesdunari jakinaraziko zaio, eta hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko ditu hautaketa prozesuan parte hartzeko oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituelako frogatzeko egiaztagiria:

Eskatzen diren eta curriculumean adierazi diren ikasketak egin izana egiaztatzen duten tituluen eta ziurtagirien kopia konpultsatua.

• Proposatutako izangaiak ez badu aurkezten galdegiten zaion dokumentazioa, AKSAk gaitzat jotako hurrengo izangaia (prozesuko amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz) kontratatu ahal izango du.

Lanpostu honen probaldia sei hilabetekoa izango da, eta epaimahaiak probaldi horretako balioespen batzordea izendatu beharko du; hark egin beharko du laneratze prozesuaren jarraipena, eta itxi egin beharko du egokia izan bada; bestela, dagokion justifikazio txostena idatzi beharko du.

• Proposatutako izangaiak ez badu gainditzen aipatutako sei hilabeteko probaldia, AKSAk gaitzat jotako hurrengo izangaia (prozesuko amaierako puntuazioaren hurrenkerari jarraituz) kontratatu ahal izango du.

AKSAk lan poltsa bat sortuko du behin-behineko kontratazioak egiteko. Lan poltsa horretan, 2. FASEA gainditu duten pertsona guztiak sartuko dira, puntuazio hurrenkeran, 4. faseko elkarrizketa pertsonalaren balorazioa kontuan hartu gabe, baldin eta ez badira jo **EZGAITZAT** 3. fasean.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Hala lan poltsa eratzea nola hura kudeatzeko oinarriak AKSaren web orrian emango dira argitara, behin hautaketa prozesua amaitutakoan.

Lan poltsetako berdinketa ordena ondoko irizpide hauek zehaztuko dute:

1. Lehenetsuna emango zaie emakumeei, emakumeak % 40 baino gutxiago diren profil profesioaletan, salbu eta beste izangaiek arrazoiak badituzte neurri hori ez aplikatzeko, sexuagatiko bazterkeriakoak ez badira; esaterako, enplegua lortzeko zailtasun handiak dituzten kolektiboetakoren batekoak izatea.
2. 2. fasean lortutako puntuazioa
3. 4. fasean lortutako puntuazioa
4. Eusko Jaurlaritzako Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak onesten duen urteko ebazpenaren arabera (ordena ezartzeko unean indarrean egon behar da), zeinaren bidez argitara ematen baita kasuan kasuko ikasturtean ordezkapenak egiteko hautagaien kudeaketa prozesuan eta ikasturte horretan deitu daitekeen beste edozein hautaketa prozesutan ordena alfabetikoa zehaztuko duen letraren zozketaren emaitza.

Hala lan poltsa eratzea nola hura kudeatzeko oinarriak AKSaren web orrian emango dira argitara, behin hautaketa prozesua amaitutakoan.

SEIGARREN OINARRIA.- HAUTAKETA EPAIMAHAI:

6.1 Helburu horrekin, hautaketa-epaimahai bat eratuko da. Hartako kideak izendatzean, **emakume eta gizonen presentzia orekatua** izatea bermatuko da, betiere gaituntza, gaitasun eta prestakuntza egokiak dituztela, inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak begiratuz.

6.2. Ordenamendu juridikoaren arabera, hautaketa epaimahaiak ebatziko ditu oinarri hauek aplikatzean sortzen diren zalantza guztiak, eta fase bakoitza behar den bezala garatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusten ez diren kasuetarako jarraitu beharreko irizpideak ezarriz. Horrez gainera, fase bakoitzaren emaitzak baliozkotuko ditu, eta gertatzen diren gorabehera guztiak ebatziko.

¹ Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertuko da presentzia orekatua dagoela baldin eta lau kide baino gehiagoko auzitegi, epaimahai eta antzeko organoetan sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkariak badu. Gainerakoetan, bi sexuak ordezkaturik badaude.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

Aipatutako epaimahaiko kideren batek ezin badu azaldu, sozietatearen zuzendaritzak (hala badagokio) izendatuko du haren ordezkoa. Epaimahaia gutxienez hiru kidek osatuko dute beti.

6.3. Hautaketa epaimahaiak erabaki dezake bere lanetan aholkulari edo enpresa espezializatuek parte hartzea, hala egitea egokia deritzon ariketen probetarako.

6.4. Epaimahaiko kideek ezin dute hautaketa-prozesuan parte hartu (eta hala jakinarazi behar diote deialdia deitu duen agintaritzari) eta izangaiek errekusatzeko eskubidea erabili ahal izango dute Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 23 eta 24. artikuluetan arautzen dituen inguruabarrak gertatzen badira.

6.5. Hautaketa epaimahaiko kide guztiek izango dute ahotsa eta botoa. Aipatutako epaimahaiaren erabaki guztiak bertaratutako kide guztien botoaren gehiengoarekin onetsiko dira, eta, boto kopuruan berdinketa gertatuz gero, epaimahaiburuaren botoak ebatziko du bozketa.

6.6. Hautaketa epaimahaiko kideen izen zerrenda behin betiko onartu eta baztertu diren izangaiei zerrendarekin batera argitaratuko da.

ZAZPIGARREN OINARRIA.- DATUEN BABESA:

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Legea) xedatutakoa betetzeko, jakinarazten diegu langileen hautaketa prozesu honetan parte hartzen dutenei ezen edozein arrazoiengatik ere beren parte hartzearen ondorioz ematen dituzten datu pertsonalak sartuko direla Arabako Kalkulugunea SAREN (AKSA) eta Qualis Consultores de Talento SLren tratamenduetan.



Arabako kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.

OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA AKSA-REN DATU BABESARI BURUZ	
Arduraduna	AKSAko Administrazio eta Giza Baliabide Saileko arduraduna
Helburua	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu AKSAk: <ul style="list-style-type: none">• Hautaketa prozesua gauzatzeko eta langilearen eta AKSAren arteko lan harremana kudeatzeko.• AKSAk parte hartzaileekin eta izangaiekin osatzen dituen lan poltsak kudeatzeko.
Legitimazioa	Izenpetzen duen pertsonaren baimena
Hartzaileak	Ez dira lagako
Eskubideak	Datuak ikusi, zuzendu eta ezabatzea, eta informazio gehigarriaren dokumentuan jasotzen diren gainerakoak.
Informazio gehigarria	Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsulta dezakezu honako web orri honetan: www.ccasa.eus , "Lege informazioa - > Datu pertsonalak" atalean.

OINARRIZKO LEGE INFORMAZIOA QUALIS CONSULTORES DE TALENTO SL-REN DATU BABESARI BURUZ	
Arduraduna	QUALIS CONSULTORES, S.L.
Helburua	Zure datu pertsonalak honako hauetarako erabiliko ditu Qualis Consultores de Talento SLk: <ul style="list-style-type: none">• Langileak hautatzeko prozesu honetan eta etorkizunekoetan parte hartzeko. Nortasun eta lan profilak egiteko. Emandako erreferentziak egiaztatzea.
Legitimazioa	Izangaiaren baimena, curriculum vitae bidaltzean.
Hartzaileak	Langileak hautatzeko prozesuak gauzatzeko enpresaren zerbitzuak erabili nahi dituzten bezeroak.
Kontserbazioa	Langileak hautatzeko prozesuak iraun bitartean, eta hura amaituta, urtebetez, beste hautaketa prozesu batzuetarako.
Eskubideak	Eskubidea duzu edozein momentutan baimena kentzeko, bai eta datuak ikusi, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, mugatu eta lekuz aldatzeko, arduradunari idatzi bat bidaliz eta erabilerari buruz enpresarekin desadostasunik izanez gero, erreklamazio aurkez dezakezu datuak babesteko agintaritzaren aurrean (www.aepd.es)